

Zein dira funtsezko elementuak proiektuak funtziona dezan?

IOIKANen proiektua aurrera eramateko **baliabide garrantzitsuenak** hauek dira:

1. Baliabide fisikoak

- **Lanerako espazioa:** Garaje bat edo estudio txiki bat, skateak sortzeko eta diseinatzeko.
- **Materialak:** Long oholak, margoketak, pinturak eta bestelako osagarriak.
- **Tresnak:** Ordenagailuak, diseinu softwareak eta telefonoa bezeroekin komunikatzeko.

2. Baliabide intelektualak eta giza baliabideak

- **Ion:** Sormen eta diseinu pertsonalizatuak sortzeko gaitasuna.
- **Iker:** Informatikako ezagutza eta webguneak diseinatzeko trebetasuna, online dendaren funtzionamendua bermatzeko.
- **Ane:** Salmentetan eta antolaketetan trebea, bezeroekin harreman zuzena eta eraginkorra izateko.

3. Finantza-baliabideak

- Bazkideek dituzten **aurrezkiak** hasierako inbertsio txikiak egiteko (materialak, webgunea eta garajea prestatzeko gastuak).